

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Babes ofizialeko 292 etxebizitzaren hasierako esleipendunen zerrenda argitaratu da Iruñean eta Berriozarren

Salerosketa-araubideko bi sustapenak osorik bete dira

Jueves, 18 de septiembre de 2014

Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsa sozietate publikoaren bidez, jabetza-araubidean eta kooperatiba-jabetzan babes ofizialeko etxebizitzaren [hasierako esleipendunen zerrenda](#) egin du [Iruñean \(Soto Lezkairu\) eta Artiberri II-an \(Berriozar\)](#), eta haien esleipen-epa irailaren 1ean zabaldu zen.

Baremotik eta eskatzaileek adierazitako lehentasunetatik ateratako behin-behineko zerrenda Nasuvinsako bulegoetan kontsulta daiteke (Iruña, San Jorge etorbidea 8, behea), eta Tuterako Infornavarraren bulegoetan (Foruen plaza, 5-6). [Nafarroako Gobernuko etxebizitza-atar](#)ian ere kontsulta daitezke.

Hasierako esleipen honetatik aurrera, 10 egun balioduneko epe bat zabaltzen da Nasuvinsaren Iruña eta Tuterako bulegoetan alegazioak aurkezteko, nahiz eta haiek ezin izango diren eskaera bakoitzaren inskripzioan jadanik baloratutako alderdiei buruz aritu.

Alegazioak ebazten direnean, beste zerrenda bat argitaratuko da eta 10 egun balioduneko epea zabalduko esleipendunek ondorengo dokumentazioa aurkez dezaten: babestutako etxebizitza eskuratzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duena, bai eta hura eskuratzeko baremo bakarra zuzen aplikatu dela. Aldi horren ondoren, behin betiko esleipena egingo da. Aipatutako dokumentazioa epearen barnean entregatzen ez bada, etxebizitzaren esleipendunak isilean hari uko egiten diola iritziko da.

Babestutako etxebizitzaren eskatzaileen erroldako datuak

Babestutako etxebizitzaren eskatzaileen erroldatik jasotako azken datuen arabera, 2014ko irailaren 1ekoa, gaur egun babestutako etxebizitzaren 4.964 eskatzaile daude alokairu-araubidean (2.306 eskaera alokairurako bakarrik, 820 alokairuko eta erosteko aukerarekin eta 1.838 bi aukeretarako) eta erosteko 1.297 eskaera.



Etxebizitzetako baten terraza.

Alokairuko guneei erreparatuz, 4.964 eskaeretatik, 5 kasutan "Nafarroa guztia" aukeratu zen gunetzat, beste 776tan oro har Iruña eta Iruñerria, eta beste 4.183 kasutan udalerrri zehatzak aukeratu ziren. Erosteke 1.297 eskaeretatik, 312 eskaeretan Iruña eta Iruñerria hautatu ziren oro har, eta beste 985etan, udalerrri zehatzak.

Salerosketa araubidean familia-unitateko kideen araberako eskaerari dagokionez (eskatzailea eta ezkonlaguna edo bikotea eta adin txikiko seme-alabak), eskaera gehienak (784, % 60,37) bakarrik dauden pertsoneri dagokie, % 21,28 (276) bi pertsoneri eta 133 (% 10,25) hirukoak dira; lau pertsonen kasuan % 5,17ra jaisten da nabarmen, 5 pertsonen osatutako familia-unitateen 30 eskaera dira, sei pertsonen 7 eskaera eta zazpi pertsonen bakar bat.

Alokairuko araubidean, alokairurako bakarrik egindako eskaeren % 29,27 bakarrik dauden pertsonen egin dute, eta hurbil samar geratzen dira bi pertsonen osatutako familia-unitateek egindakoak (% 28,3, 651 eskaera) eta hiru pertsonen egindakoak (%21,42, 494). Erosteke aukera duen alokairuaren kasuan, eskaeren erdia ia (404), bakarrik dauden pertsonen egin dute, % 23,66k (194) bi pertsonen eta % 15,24k (125) hiru pertsonen. Azkenik, bi lehentasunezko eskaeren % 42,44 (780) pertsona.



Eraikin batzuen maketa.

Galería de fotos



Etxebizitzaren berregitea.